

3.10.1. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERREGELAMENDUAREN ZIRRIBORROA.

TXARTEL HERRITARREKO ARAUDI ZIRRIBORROA

2018an, Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Araudiaren zirriborroa egin zen.

Lan-ildo desberdinen multzo bat da dokumentua. Alde batetik, Iruñearen antzeko ezaugarriak dituzten beste hiri batzuen adibideak hartu ziren eredutzat, hala nola Donostiakoak eta Gasteizkoak. Bestalde, elkarte-sarearekin, adituekin eta herritar aktiboekin egin zen lan, partaidetza-espazioen bidez, hala nola herritarren partaidetzarako foroak eta koLaboratorioak. Hori guztia hainbat alorretako udal-teknikariek osatu, berrikusi eta amaitu zuten, eta gai juridikoe-tan eta prozedurazkoetan, besteak beste, beren ekarpena egin zuten.

Zirriborroak 5 zati ditu:

- Sarrera
- Partaidetza-organoak
- Partaidetza-prozesuak
- Kontsultak, herritarren ekimenak eta beste batzuk
- Lankidetza publiko-soziala

2018ko abenduan, onesteko zegoen dokumentua.